BERROBIKO UDALA

**UDALBATZA OSOAREN BILKURA BEREZIRAKO DEIALDIA**

Indarrean dagoen Tokiko Erregimen legearen 21.1. c) artikuluak ematen didan ahalmenaren bidez, ekainaren 13an goizeko 9:00etan Udaletxe honetan izango den Bilkura Berezia egiteko dei egitea erabaki dut, honako gai hauek aztertzeko.

EGUNEKO GAI ZERRENDA

1) Udal eraketa.
2) Alkatearen hautaketa
3) Ezohiko kontaketa.

Jakinaren gainean bazaude eta Alkate jaunak izenpeturiko deialdi honen kopia bat jasotzen baduzue, arren, orripean sina dezazun eskatzen zaizu.

**CITACIÓN A SESION EXTRAORDINARIA DEL AYUNTAMIENTO PLENO.**

En virtud de las facultades que me confiere el artículo 21.1 c) de la vigente Ley de Régimen Local, ha acordado citarles a Vds. para celebrar Sesión Extraordinaria que tendrá lugar en esta Casa Consistorial el día 13 de junio a las 9:00 horas para tratar los asuntos que figuran en el siguiente

ORDEN DEL DIA

1) Constitución de la Corporación
2) Elección del Alcalde y toma de posesión en su caso.
3) Arqueo ordinario.

Le ruego que de quedar conforme y recibir copia de esta Convocatoria suscrita por el Sr. Alcalde, se sirva firmar al pie de la misma.

Berrobin, 2015ko ekainak 9

ALKATEAK

Izp.: Joseba Iñigo Aiertza Mujika

ALKATETZA

Berrobi

## UDALBATZAK 2015eko EKAINAREN 13AN EGINIKO ERAKETA BILKURARI DAGOKION AKTA

Berrobiko udaletxeko bilkura-aretoan bi mila hamabosteko ekainaren hamahiruko goizeko 09:00tan, maiatzaren 24ean eginiko Udal-Hauteskundeetan hautatuak izen ziren ondoko zinegotziak elkartu dira:

**EH BILDU**

Joseba Iñigo Ayerza Mugica
Erlantz Allur Aramburu
Igone Saldias Uranga
Larraitz Esnaola Echeverria

Bertan dago, egintzaz fede emateko, Ana Larrarte Kerejeta idazkari Andrea.

Idazkari andreak jakinarazi du, Bilkura honen helburua, 2015eko maiatzaren 24ean hauteskundeetan izandako emaitzen arabera, Udalbatza eratzea dela, beti ere Hauteskunde Orokorretako Lege Organikoaren 195.1 artikuluak agintzen duenari jarraiki, martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organiko bidez aldatua, eta Toki Udalbatzen Antolaketa eta Funtzionamenduko Erregelamenduaren 37.1 artikuluaren arabera. Gai Zerrenda ondorengoa izanik:

- Udalbatzaren eraketa.
- Alkatearen hautaketa eta jabetza hartzea, hala badagokio
- Ezohiko kontaketa.

Berrobi

Jarraian, Adinekoen mahaia osatu dute, Hauteskunde Orokorreko Araubideari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195.2 artikuluak aurreikusten duela, martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organiko bidez aldatua. Mahaia hautaturiko zinegotzi zaharrena den JOSEBA IÑIGO AYERZA MUGICA jaunak eta zinegotzi gazteena den IGONE SALDIAS URANGA andereak osatu dute. Idazkari lanetan Ana Larrarte Kerejeta andereak jardun du, hots, bilkurakoak ere denak.

Mahaiburuak bilkura hasitzat eman du.

Mahaiko idazkariak irakurri ditu aldez aurretik emandako egiaztagiri guztiak, hau da, hautaturiko zinegotzien nortasun egiztagiriak, eta mahaikideak Zonalde honetako Hauteskunde Batzordeak bere garaian Udalera igorritako ziurtagiriekin frogatu eta ondo daudela adierazi dute.

Jarraian, Idazkariak Hauteskunde Orokorreko Lege Organikoaren 108.8 artikuluan xedetutakoaren arabera, zinegotziei ondorengo galdera egin die: "Hitz ematen al duzue ohorez eta kontzientziz, Berrobiko Udaleko zinegotzi karguak dakarzkizuen betebeharrak zintzo beteko dituzuela Erregearekiko lehialtasunez eta Konstituzioa eta Euskadiko Autonomi Estatua Estatuko oinarrizko arau gisa errespetu eta errespetatuaraziko duzuela?"

Ondoren, mahaiburuak zinegotziei banaka-banaka hots egin die, eta hauek ondorengo eran erantzun:

- AYERZA MUGICA, Iñigo: " Legeak aginduta, hitza ematen dut".
- SAIZAR URANGA, Igone. :" Legeak aginduta , hitza ematen dut".
- ALLUR ARAMBURU, Erlantz : " Legeak aginduta, hitza ematen dut".
- ESNAOLA ECHEVERRIA, Larraitz:" Legeak aginduta, hitza ematen dut".

Jarraian, bilkurara hautaturiko lau zinegotzi etorri direnez, gehiengo absolutua osatuz, Udalbatza eratua dagoela aitortu du.

Hauteskunde-araubide Orokorraren 5/1985 Lege Organikoaren, ekainaren 19koa, 196 artikuluak agintzen duenari jarraiki, martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organiko bidez aldatua, Udalbatza eratzen den Osoko Bilkura berean Alkatea hautatu behar da, aipatu aginduak finkatzen duen prozeduraren arabera: Alegia:

a) Zerrenda-buru diren zinegotzi guztiak izan daitezke alkategai.

b) Horietako bateren batek gehiengo osoaren botoak erdietsiko baditu, zuzenean izendatua izango da.

c) Eta horietako bakar batek ere ez baditu lortzen gehingo osoaren botoak, orduan herrian botorik gehien erdietsi duen zerrendaburua izango da Alkate.

d) Bototan berdinketa emango balitz, zozketa egingo litzateke.

Udal honetako Araudi Organikoaren 11. Art.ri jarraiki, bozketa isilpekoa egingo da.

Ondorengo hautagaia izan da izendatua :

- AYERZA MUGICA, Iñigo

Ondoren, idazkariak hautatu bakoitzari txartel txuri bana eman dio, eta bertan, hautatuek Alkate izateko botoa eman nahi dioten zinegotziaren izen-deiturak ipini behar dute, eta gero hautestontzian sartu.

Berrobi

Hautes-txartelak hautestontzian sartu ondoren, boto kontaketari ekin zaio mahaiburuak txartel bakoitzean adierazitako Alkate hautagaiaren izen-deiturak ozen irakurriz. Emaitza honako hauxe izan dira:

- 4 botu AYERZA MUGICA, Iñigo

Bozketaren arabera- AYERZA MUGICA, Iñigok lortu du gehiengo osoa, Idazkariak adierazi du AYERZA MUGICA, Iñigo jauna dela Berrobiko udaleko alkatea.

Jarraian, Idazkariak aparteko fondo kontaketaren egoera azaltzen du.

Eta deialdiko helburua bete ondoren, Alkateak bilkuran amaitutzat eman du 09:30 zirela. Nik, Idazkariak, ziurtatzen dudana.

O.E.

ALKATEAK

ALKATETZA

IDAZKARIAK

IDAZKARITZA

**2.015ko EKAINAREN 13ko EZOHIZKO KONTAKETA**

**ARQUEO EXTRAORDINARIO A 13 DE JUNIO DE 2015**

## ALTXORTEGI EGOERA – ESTADO DE TESORERIA

| | |
|---|---|
| Kutxa ............................................... | 35.535,39 € |
| GUZTIRA/TOTAL | 35.535,39 € |

## ZORPETZE EGOERA – SITUACIÓN DEUDA FINANCIERA

- **Bi mailegu**

  - **Amortizatzeke 206.306,70 €**
  - **Amortizatzeke 134.278,67**

  **GUZTIRA 340.585,37**

Idazkari kontuhartzaileak

IDAZKARITZA